# NAZIOARTEKO IRAKASLE-TXARTELA (ITIC)




Nazioarteko irakasle-txartela ( ITC - Irakasleen International Teacher Identity Card), mundu osoan dago onartuta. ISIC txartelarekin, deskontu eta zerbitzu bereziak izango dituzu garraio, ostatu, museo, antzoki, kultur gune eta **mundu osoko** leku historikoetan. Abantaila zehatzak kontsulta ditzakezu.
Nazioarteko irakasle-txartela (ITC)ofizialki onartutako ikastetxe batean **irakasle** gisa kontratatuta daudenentzat dago egina.
Nazioarteko irakasle-txartelak eskola-urtea **irauten** du eta baita hurrengo urteko irailetik abendura bitarteko hilabete tartea ere (2008/2009 urtean egindako txartelek 2009ko abenduan galtzen dute balioa).

Hona hemen **eskakizunak**:

- Kasuan kasuko urtean ofizialki onartutako ikastetxe batean irakasle diharduzula egiaztatzen duen agiria
- Tasa: 8 euro

Zalantzarik baduzu, ordainketa egin aurretik, Gazte Informazio Bulego batean galdetu edo gazteria@ej-gv.es helbidera posta elektronikora mezu bat bidali. Gogoratu ordainketa egin ondoren ez zaizula tasa itzuliko.

**Non eskatu:**

Txartela **Internet** bidez (orrialde honetan dago formularioa) edo nazioarteko txartelak egiten dituen **edozein Gazte Informazio Bulegotan** (Araba, Bizkaia edo Gipuzkoa) eska dezakezu. Txartela jasotzeko nahitaez bulego batera joan behar da.

javascript:abrirFormulario(%22O79Redirect.jsp?TARGET_PAGE=O79FormulariosCarnetsServlet?TIPO_CARNET=9&COD_IDIOMA=E%22)**Nola tramitatu txartela**

1.- Zure **txartela eskatzeko**, formularioa bete zure datuekin eta eskaera orria inprimatu. Beste aukera bat da txartelak egiten dituen edozein Gazte Informazio Bulegotara jotzea eta bertan emango dizute zure eskaera-orria.

2.- **Tasa ordaindu** (8 euro) eta ordainketaren agiria gorde
Internet bidez eskatzen baduzu, ordainketa Interneten (formularioaren urratsak jarraituz) edo banku sukurtsal batean egin dezakezu.
Eskaera bulegoan egiten baduzu zure eskaera-orria eraman behar duzu banku sukurtsal batera.
http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-801/eu/contenidos/informacion/sociedad_info_juven/eu_1794/informacion_e.html3.- **Jaso ezazu** zure txartela Araba, Bizkaia edo Gipuzkoako **edozein bulegotan**. Txartela jasotzeko nahitaez honako **agiriak aurkeztu** beharko dituzu:

- NANa, pasaportea edo bizileku-txartela
- Tasa ordaindu izanaren egiaztagiria
- Txartelerako neurriko argazki bat
- Ofizialki onartutako ikastetxe batean irakasle zarela egiaztatzen duen agiria

http://www.adobe.com/es/products/acrobat/readstep2.htmlEskabide orria ikusteko Acrobat Reader behar baduzu, irudiaren gainean klik egin eta programa eskuratuko du